



Iragan apirilaren 2an Cartagenan gertatutako, pertsonen, erakunde politikoen egoitzen eta hainbat elkarteren aurkako erasoen aurrean, eskuin muturretik edota tolerantziarik gabeko beste edozein extremismo talde batetik sustatutako gorroto-diskurtsoaren ondorioz, bizikidetzaz demokratikorako erronka dena, Eusko Legebiltzarreko Elkarrekin Podemos –IU, PSE-EE eta EAJ-ko talde parlamentarioak:

- Askatasunaren eta aniztasunaren aurkako eraso justifikaezina diren eraso horiek arbuia eta gaitzesten ditu.
- Berrito ere, indarkeria, mehatxuak edo estortsioa inolako proiekturen defentsarako tresna gisa erabiltzearen aurka dagoela berretsi du.
- Adierazten du indarkeria ekintza politikorako tresna gisa erabiltzeak ez duela lekurik, eta ez duela lekurik izan behar, XXI. mendeko Europan, eta bide baketsu eta demokratikoen erabilera eskusiboa ezinbesteko agindu etiko eta soziala dela.
- Berretsi egiten du askatasuna, tolerantzia, berdintasuna eta aniztasun politikoa defendatzeko konpromisoa, alderdi politiko jakin batzuek sistema demokratikoaren funtsezko balioak etengabe zalantzan jartzearen aurrean.

Gasteiz, 2021ko apirilaren 13a

**Miren Gorrotxategi**  
Elkarrekin Podemos –IU

**Eneko Andueza**  
PSE-EE

**Joseba Diez Antxustegi**  
EAJ-PNV